

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Jendaurrean jartzea hiri-izaerako ondasunen balio-gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen 5. Udal Ordenantza Fiskalaren aldaketa eta Amurrioko San Anton merkatuan postuak jartzeagatik jabari publikoa aprobetxatzeagatik tasa arautzen duen 11. Udal Ordenantza Fiskaleko 1. Eranskina aldatzea

Udalbatzak, 2020ko ekainaren 25ean egindako bilkuran, behin-behinean onartu zuen Hiri Ondasunen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen 5. Udal Ordenantza Fiskala aldatzea (2020/6/S062 espediente) eta Merkatuan postuak jartzeagatik Jabari Publikoa aprobetxatzeagatik Tasa arautzen duen 11. Udal Ordenantza Fiskaleko 1. Eranskina aldatzea (2020/9/S062 espediente).

Iragartzen da erabaki horiek, aurrekari guztiekin batera, jendaurrean egongo direla udal-tertxeko idazkaritzan, hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedienteak aztertu eta egoki irizitako erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, ordenantza fiskalak aldatzeko erabakia behin betiko hartu dela ulertuko da, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 17-3 artikuluekin bat etorritz.

Amurrio, 2020ko ekainaren 29a

Jarduneko alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA